



ZAINTZA(K) EUSTEKO IRAULI

Dossierra

- MADDI ISASI & ANE ESCONDRILLAS ·
- SOZIOKOMUNITARIOA: AURRERA BEGIRA ·
- EKHIÑE PETRIATI & MARINA URKIDI ·
- CAROLINA MEDINA & VANESA FONTANELLAZ ·
- FORUM SOCIAL DEL CUIDADO ·

Komunitatea

- AS QUE LIMPAN · KOMUNITATEARI ·
- PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOA: ZAINTZA
ESKUBIDE KOLEKTIBOA · GOMENDIOAK ·

Talaiaaren 16. zenbakia duzu esku artean, gogoetarako gunea; arigitalpen bat ez ezik, hausnarketa eta eztabaiderako espazio ere izan nahi duena. Talaia, LAB-eko Ekintza Sozialeko egiturak eta Ipar Hegoa Fundazioak formazio sindikal, politiko eta sozialerako egiten duten eskaintzenaren parte da

Ale honetan zaintza krisiaz aritu gara, Greba Feminista Orokorraren atarian. Hasteko eta behin, Marina Urkidi eta Ekhiñe Petriati Denon bizitzak erdigunera plataformako kideak elkarritzetatu digu, Greba Feminista Orokorraz eta Herri Akordioaren proposamenaz hitz egiteko. Horrez gain, Euskal Herritik kanpo zaintzaren gaiaz dauden begiradak ere gurera ekarri nahi izan ditugu. Horretarako, batetik, Encuentro de Organizaciones talde argentinarra elkarritzetatu dugu. Bestetik, Katalunian Zaintzarako Eskubidearen

inguruan egin duten lanketa ere jaso nahi izan dugu, Mireia Roca, Sílvia Bofill-Poch eta Dolors Comas ikerlarien eskutik. Bestalde, sindikalismotik ere pentsatu nahi izan dugu gaia. Horri lotuta, soziokumunitario sektorearen borroka ibilbidea jaso dugu erreportaje batean. Maddi Isasi eta Ane Escondrillas LABeko kideek, al-diz, LABek gaiaz egiten duen irakurketa eta ditugun erronka nagusiak azpimarratu dituzte.

Horrez gain, ekintza sozialaren ikuspegitik aliantza politikez hausnartzeko tartea ere hartu dugu Komunitateari editorialean. Jarraian, LABen Programa Sozioekonomikoa oinarri hartuta, zaintzarako neurri programatikoen inguruan sakondu dugu. Eta, amaitzeko, gomendioen atalean Josefina "Txefi" Rocok As que limpan antzezlana erreseinatu du, etxeiko langileen prekaritatea lantzen dituena. ■



**TALAIA 16 | ZAINTZAK
EUSTEKO IRAULI
2023KO UDAZKENA**

- 03** **MADDI ISASI & ANE ESCONDRILLAS**
- 07** **SOZIOKOMUNITARIOKO SEKTOREA**
- 08** **EKHIÑE PETRIATI & MARINA URKIDI**
- 12** **ENCUENTRO DE ORGANIZACIONES**
- 16** **FORUM SOCIAL DEL CUIDADO**

KOMUNITATEA

- 20** **KOMUNITATEARI**
- 22** **AS QUE LIMPAN ANTZERKI ERRESEINA**
- 24** **PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOA ZAINZA ESKUBIDE KOLEKTIBOA**
- 27** **GOMENDIOAK**



Aldizkari honen edukiak Creative Commons - Aitorrtu Partekatu berdin lizentzia baten pean daude.

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondo-rengos balditzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Los contenidos de esta publicación están bajo licencia Creative Commons - Reconocimiento - Compartir igual. Con esta licencia eres libre de compartir, copiar y redistribuir el material así como de crear trabajos adaptados, siempre bajo las siguientes condiciones:

- Debes reconocer adecuadamente la autoría.
- Si creas un trabajo derivado, debes difundir las contribuciones bajo la misma licencia que el original.

«Zaintzaren inguruau
eztabaida politiko eta
soziala sustatu eta
kontsentsu sozialak
lortzeko garaia da»

MADDI ISASI LAB sindikatuko Idazkaritza Feministako arduraduna eta **ANE ESCONDILLAS** soziokomunitario sektoreko arduraduna elkarritzetatu ditugu, Greba Feminista Orokorraren testuinguruan abian den borroka zikloaz hausnartzeko.



Zaintzarako eskubide kolektiboa da
Mugimendu Feministak sindikatu
eta hamaika eragilerekin batera
deitu duen Greba Feminista Orokorraren ardatza. Zaintzaz asko hitz
egiten bada ere definitzen zaila den
kontzeptua da. Nola eta zer ulertzen
duzue Zaintzaz ari zaretenean?

Zaintza lanak pertsona guztiak bizzitak sostengatzea ahalbidetzen duten lanak dira. Lana dela aipatzea funtsezko da beren garrantzia indartzeko. Zaintza lanak ez dira modu boluntarioan egiten direnak, baizik eta pertsonen zainduak izateko beharrak asetzan dituztenak baizik. Zaintza lanak ez daude aitortuak. Se-xuaren araberako lan banaketagatik, emakumeen* gain erortzen dira, eta horrek gizarte heteropatriarkalean bigarren maila batean kokatzen ditu funtsezko behar eta lan horiek. Historikoki emakumeen* gain erori dira, fabrikara joaten zen gizon langileak beti izan ditu etxean produktiboa iza-teko behar guztiak aseta, inguruko emakumeen* sorbaldetan erori direnak.

Lan merkatu arautuko emakumeen* lanbideak ere erreprodukzioaren (zaintzaren) luzapena dira, horregatik dira gehiengoa sektore horietan. Arlo "pribatuan" (familietan) inposatutako rolek jarraitu egiten dute arlo produktibo-publikoan.

Sektore feminizatuak eta zaintza sektoreak guziz lotuta daude: zahar egoitzak, etxe-ko lagunza, esku hartzearia, osasungintza, jangelak, haurreskolak, garbitzaileak, etxe-ko langileak... lan horietan aritzen diren emakumeek* ez dute gizartean inongo aitortzarik, ez soziala, ez ekonomikoa, ez politikoa. Instituzioek eta patronalek

jakin badakitelako lan esku merke hori euskal gizartearren erreprodukziorako funtsezko dela, eta aitortuko balute galera ekonomikoak izango lituzketela, zaintzarekin duten negozioa bukatuko litzatekeela. Euskal Herriko instituzioek ateak zabal zabalik utzi dizkie enpresa pribatuei eta horrek zaintza sektoreei kalte handia eragiten die. Izan ere, patronalek eta instituzioek beraien artean banatzen dituzte zaintza sektorearen pasteletik erorritako irabaziak.

Zaintza lanetako batzuk merkantilizatuak eta oro har emakume* prekarizatuen bizkarretan daude. Beste batzuk, soldapeko lanetik kango kokatu arren, berdin berdin emakumeek* egiten dituzte. Urteak daramatzazue soldapeko lanetan dabiltzan emakume* langileak antolatzen eta hauen borrokak pizten. Zer nolako balorazioa egiten duzue urteotako ibilbideari dagokionez? Izan da garaipenik? Zein erronka ditugu aurrera begira?

2008an egindako 7. Biltzar Nagusian LABen sektore soziokomunitarioa osatu zenetik, ikuspegi nazional eta estrategiko batetik zaintza sektoreko langileen beharrei erantzun kolektibo bat emateko lehen urratsak emanen hasi ginen. Sindikatan estrategia sindikala birpentsazean hasi ginen orduan, eta 9. Biltzar Nagusian era-baki estrategiko batzuk hartu genuituen, besteak beste, konfrontazioa kapitala eta bizitzaren artean kokatzea eta langile subjektuaren berrosaketan urrats praktikoak ematea. Inurri lan guzti horrek emaitza izugarriak eman ditu 2021-2022 kurtsoan. Izan ere, sektore soziokomunitarioan inoiz baino gatazka eta negoziazio gehiago ireki dira: zahar egoitzetan, etxez etxeko laguntza sektorean, aniztan funtzionalean...

Garaipenak izan dira, batez ere enpresa hitzarmenetan, baina garai-

pen handiena langileak antolatzeko eta ahalduntzeko izan dugun gaitasuna izan da. Gure ordezkariek sindikatu-rekiko adierazitako konpromisoa eta implikazio maila ezinbestekoak izan dira LAB hainbat borroken lidergotzan egoteko, ekintza sindikal indartsua bultzatuz. Hemendik aurrera ere hori da bidea.

Bestalde, aurrean dugun erronka nagusia Greba Feminista Orokorra inflexio puntu gisa baliatzea izango da, enpresetan pedagogia egiteko eta langileak berriz ere mobilizazioetan haus-

potzeko. Greba honek gure borroka zi-kloa indartu eta elikatzen du.

Borroka horretan inflexio puntu izango da azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorra. Lehen aldiz, Mugimendu Feministak oroko-rra den grebarako proposamena egin du eta LABek, beste hainbat sindikatu eta eragilekin batera, deialdia babesten du. Zeintzuk dira LABek greba horrekin lortu nahi dituen helburuak?

Mugimendu Feministak egoeraren inguruan egiten duen irakurketa partekatzen dugu, eta borroka planteamendu hori beharrezkoa ikusten dugu zaintzaren krisiaren aurrean aldaketak eragin eta urrats kualitatiboak emateko.

Mugimendu Feministaren izaera autonomoa errespetatz, gure posizio propiotik, LAB sindikatu hasieratik egon da prozesuan implikatuta, egoera-ren analisiarekin bat egin eta proposamen politikoak partekatzen ditugulako; esaterako, gure Programa Sozioekonomikoan eta egin ditugun beste hamaika proposamenetan. Bizitzak Erdigunean Koordinadorak 2022ko apirilean Gasteizen antolatutako jardunaldieta par-te hartu genuen, baita herrialdeetako asanbladetan edo sindikatuekin egin diren bileretan ere. Beraz, hasieratik konpartitua den prozesuaren parte garela esan dezakegu.

Gure jendartean dugun arazorik larrienetako da zaintza krisiarena. Zaintza, eskubide bezala, gaur egun ez dago ez aitortua, ez bermatua. Zaintzarako sistema publikorik ez da inoiz garatu. Sistema kapitalista zisheteropatriarkalak ez du horretarako beharrik izan; zaintza lanak emakumeen* bizkar utzi izan dira, eremu pribatuan eta familia nuklearretan sostengatuta.

Egoera guztiak bidegabek izanik

**ZAINZA,
ESKUBIDE BEZALA,
GAUR EGUN
EZ DAGO
EZ AITORTUA,
EZ BERMATUA**

ere, are muturrekoagoan daude etxe-ko langileak, hauetariko asko emakume* migratu eta arrazalizatuak. Erregimen berezia dute, eta, ondorioz, gainerako langileek baino eskubide gutxiago dituzte. Negoziazio kolektiborako eskubidea urratua dute, eta Atzerritar Lege arrazisten eraginpean daude.

Beraz, uste dugu zaintza kri- siak erantzunak eskatzen dituela. Zaintzaren errealtitatea iraultzeko borrokan ari gara eta badira premiazko aldarrikapenak: borrokan ari diren zaintzako langileen lan hitzarmenak eguneratzea, zaintza-rekin negoziorik ez egitea eta pri- batizaturiko zerbitzu publikoak pu- blifikatzeko plana, etxeko langileen egoera erregularizatu eta negoziazio kolektiborako duten eskubidea ber- matzea.

Zaintzaren inguruan eztabaidea politiko eta soziala sustatu eta kontsensu sozialak lortzeko garaia da. Horregatik, Greba Feminista Orokorraren planteamenduarekin bat egin eta greba ahalik eta orokorra izan dadin lortu behar dugu. Zaintza Sistema Publiko Komunitarioaren aldarrikapenari zentralitatea emanez, ‘Euskal Herrian posible egin dezagun’ ildoa indartuz.

LABek bere Programa Sozioeconómika berritu eta banaketa hirukoitzaren proposamena jaso du bertan, zor patriarkalarekin amaitu eta Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa eraikitzeko helburuarekin.

Zer da zor patriarkala?

Ekonomia Feministaren begiradatik, zor patriarkala emakumeoi* zaintza lanak (aitorta ekonomiko, sozial eta politikorik gabe) egiteak suposatu digun kostua ordaintzeko zuzenketa faktore bat aplikatzeko formula edo aldarrikapen politiko bat.

Ezer gutxitako balio du “beti izango

“ZAINTZA LANAK DEMOKRATIZATZEKO ETA EMAKUMEON* ESPLATAZIOAREKIN BUKATZEKO BORROKA ZIKLO BAT ABIATZEKO MOMENTUA DA”

daintzeko. Iruzurra da soldata arrakala dagoela aitortzea eta konponbidea lan merkatuan kokatzea. Ongi baitakite ez dagoela halako aurrera urratsik egiteko lan harreman eredu demokratikorik; ezta indar harremanik edo egiturazko aldaketa lortzea helburu duen prozesu soziopolitikorik ere.

Arrakalaren aitortzaren borroka irabazi dugu. Sexuaren araberako lan banaketan oinarritzen den eredu iraultzea helburu izango duen prozesua behartzeko, urrats berriak behar ditugu, ordea. Proposamenak hor daude: emakumeoi* esleitu dizkigutenean balorazio berria egitea; zor patriarkala deritzogun aldagai zuzentzailearen bidez sektore feminizatuetako soldatka gaurkotzea; zaintza lanak berrantolatzea gizonen, emakumeen*, komunitatearen eta sistema publikoaren artean banatzeko...

Eta nola irudikatzen du LABek Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa?

Guztioen bizitzak erdigunean jarriko dituen sistema bezala. Inor esplatu gabe, guztioen beharrak kontuan hartuko dituena. Zainduak izango direnen parte hartzea eta agentzia sustatuko dituena. Finean, zaintza- ri behar duen balioa emanez eta ez ezkutuan gestionatzen diren “arazo” bezala.

gara zoretan zaintza lanetan aritu diren emakumeekin* esaldia diskurtsoetara ekartzeak, gero ez badago inolako borondaterik sistemak inposatutako baldintzetan egindako lan guzti horiek benetan balio duena aitortzeko, eta ez bada neurten emakumeoi* honek suposatu digun kostu ekonomikoa zehazki zenbatekoa den, zor zaiguna or-

LABen urteak daramatzagu Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa aldarrikatzen eta zaintza eskubide kolektibaren alde borrokan. Zaintza krisiaren elementu nagusiak identifikatuta ditugu: zaintza lanen aitorta eza, zaintza-rako zerbitzuen pribatizazio basatia eta horrek zaintzaileentzat dakartzan lan baldintza kaskarrak (soldata baxuak, lan zama jasanezinak, karga emocional handia, lan osasunerako eskubideen urraketa...), eta ondorioz, arretaren kalitate eskasa. Errealitate horren aurrean

aldarrikatzen dugu zaintza lanak demokratizatzea, publikoak, unibertsalak eta bidezkoak izatea eta guztiak eskura egotea.

Jakin badakigu gaur egun go instituzioek ez dutela borrhondaterik norabide horretan urratsak emateko: kontrara, zaintza zerbitzuak pribatitzaten jarraitzen dutela. Horregatik ere da garrantzitsua greba hau, Zaintza Sistema Publiko Komunitarioaren bidean urratsak emateko beharra mahai gainean jarri eta sistema oso bat eraikitzeko bidean garaipen zehatzak lortzeko aspirazioa duelako.

Gure ustez, publikoa izateak zaintzarako guztiak eskubidea bermatu behar du (eskubide sozial gisa ulertzen dugulako). Publikoak unibertsala eta bidezkoia izan behar du. Arlo publikotik finantzaketa eta kalitatea bermatu behar dira. Gainera, mercantilizatu gabeko izaera publikoa izan beharko du.

Komunitateari buruz ere hitz egin behar dugu. Komunitateaz aritzea bizitza komunaren aldeko apustua egitea da, zaintza eskubide eta erantzukizun kolektibo gisa ulertzaz. Baino komunitateak ez du bete behar administrazioek assetu gabe uzten duten hori. Arlo publikoaren eta komunitarioaren arteko harremana ez baita dikotomikoa, eraikitzen doan zerbait baizik.

Hala ere, ulertzen dugu Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa bidean definitu eta eraikiko dugun zerbait dela, eztabaidea sozial baten bidez etorri beharko dena (eta jadanik horretan ari gara). Zaintza beharrak modu demokratiko eta publikoan konpontzeko balioko digun tresna bat izan behar dela argi izanda.

“ SEXUAREN ARABERAKO LAN BANAKETAN OINARRITZEN DEN EREDUA IRAULTZEA HELBURU IZANGO DUEN PROZESA BEHARTZEKO, URRATS BERRIAK BEHAR DITU ”

horretan jarraituko dugu borrokan, zaintza lanei aitortza politiko, sozial eta ekonomikoa eman arte.

Sindikatuak pribatizatutako zaintza langileen aldeko aldarriak defendatzen jarraituko du, eta lan publikoa egiten dutela aitortu arte borrokatuko dugu. Sektore soziokomunitarioan, aurreko kurtsoan, hainbat mobilizazio eta ekimen egin genituen pribatizatutako zaintza sektoreetako langileak langile publikoak direla aldarrikatuz. Greba Feminista Orokorraren ostean aldarri berdinari eutsiko diogu. Asanbladak deitu ditugu, hauteskundeak datoz... horregatik antolatuak egon behar gara eta ekintza sindikal aktibatu behar dugu. Hortaz, Greba Feminista Orokorean sortutako sinergiak, aliantzak, eta lan pedagogikoak egitera goazen ibilbidea elikatu eta batenbesten duela uste dugu.

Zaintza sektoreez gain, bestelako lan eremueta ere greba honek ere paradigma aldaketa bat suposatu behar du, eta bizitzak erdigunean jartzeko zaintza lanak eraldatzeaz hitz egiten dugunean hau konpromiso konkretuetara pasatzen saiatu behar gara. Hala nola, gizonen gizonek zaintza ardurak hartzea, kontziliazio neurriak eta zaintzarako denborak.. Beste era batera esanda, gizonen implikazioan ere salto bat eman behar da, aldaketa nagusiek hortik etorri behar dute, zaintza lanetan ardurak hartu eta gaur egungo sexuaren araberako lan banaketa bidegabe honekin amaitzeko.

Grebaren ondorengo fasean Herri Akordio bat eraikitzeaz ari garenean uste dugu sindikalismoaren eritzulpena izan behar duela horrek. Herri Akordioa ezin da izan bakarrik politikoa eta instituzionala. Aliantzak eraiki behar ditugu eta sindikalismoaren eremuan konpromisoak hartzen eraman behar gaitu prozesuak, modu kolektiboan, Mugimendu Feministak eta eragile sozialekin. ■

Grebaren ondorengo fasean Herri Akordio bat eraikitzeaz ari garenean uste dugu sindikalismoaren eritzulpena izan behar duela horrek. Herri Akordioa ezin da izan bakarrik politikoa eta instituzionala. Aliantzak eraiki behar ditugu eta sindikalismoaren eremuan konpromisoak hartzen eraman behar gaitu prozesuak, modu kolektiboan, Mugimendu Feministak eta eragile sozialekin. ■

Zaintza lanak demokratizatzeko eta emakumeen* esploazioarekin bukatzen aldarrikapen horiekin, borroka ziklo bat abiatzeko momentua izango dela. Mugimendu Feministak egin den apustua argia da eta sindikalismotik ere norabide

Soziokomunitario sektorearen

borroka ibilbidea eta aurrera begirako erronkak

Larraia da pribatizatutako zaintza sektoreetako langileek bizi duten egoera. Egunero-egunero euren duintasuna eta eskubideak zapaltzen eta urratzen dituzte enpresa pribatuak. Enpresen irabazi asmoak gailentzen dira langileen bizitzen aurretik, eta instituzioek beste alde batera begira jarraitzen dute. Aldi berean, zaintza lanek sostengatzen dituzte Euskal Herriko bizitzak. Zainduak izateko eskubidea bermatzen duten eskuak eta gorputzak dira langile horienak.

Honela azaltzen du arazoaren erroa Goikoana Barriosek, Asociación Educativa Aldaiako LABeko delegatuak: "sektore hauen arazo nagusia da elizaren eskuak aisialdiko klubetan lanean hasi ziren gazte asko egun erakunde eta programa ezberdinak kudeatzen dituzten enpresariak edota patronala bilakatu direla, eta horien DNAra, oraindik ere, boluntarioen espíritua nagusitzen dela. Baino iritsi da garaia uler dezaten arlo sozialeko profesionalak garela eta horrek errekonozimendu bat ekarri beharko lukeela berarekin".

Gizarte zerbitzuetan edo zaintza lanetan diharduten langileen lan baldintzen prekarizazioan, guztiok dugu zer esana, zaintza lanen edota gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak baikara guztiok. Gure bizitzako uneren batean, pertsona guztiok egongo gara mendekotasun-egoeraren batean, eguneroko oinarrizko beharrizanak bermatzeako edo laguntza emozional premian. Azken finean, zaindu egin beharko gaitutze.

Pribatizatutako zaintza sektorea pre-

karitatean murgilduta dagoen sektorea da: langile falta eta horrek dakarren egoiliarrekiko arreta eskasa, lanaldi luzegiak, miseriazko soldatak, lan osasunean neurrik eza, empleguak eta lana kontziliatzeko ezintasunak... dira langile horien eguneroko ogia. Kalitatezko zerbitzu publiko bat izan beharko litzatekeena enpresa pribatuak esku uzten dute instituzioek. Zaintza zerbitzuan izugarrizko negozio ekonomikoa ikusi dute, emakume* langileei plusbalioa lapurtzean eta egoiliarren bizi baldintzak hobetzeko inongo inbertsio estrategikorik ez egitearen ordainetan bada ere.

Nekane Olalde Ermuko Abeletxe helduen egoitzan LABeko delegatuaren ustean, pribatizatutako zaintza sektoreen negoziaketa kolektiboan, lizaroan irauten duen blokeoaren aurka borrokatu beharra dago. Aurrez aipatu bezala, arazoaren erroa zaintza lanen aitorta ezean edo errekonozimendu eskasean aurkitzen da. Gainera, Olal-

deren esanetan "negoziazio mahaietan parean ditugun patronaleko ordezkarrien artean zein instituzioetan gizonak dira nagusi, emakume* langileen lan baldintzak erabakitzentzen. Heteropatriarkatua itotzen gaituen soka bilakatzen da berriz ere". Trajedun gizonentzat prekarizatutako emakume* langileak etekin ekonomikorako bitarteko dira. Ez dituzte aitortzen eskubide osoko langile bezala.

URTEETAKO BORROKA

LABek urteak daramatza feminizatutako zaintza sektoreetako langileak antolatzen: etxeko langileak, etxez etxeko laguntzakoak, zahar egoitzetakoak, esku hartze sozialekoak...

Sektore guzti horiek enpresa pribatu menpe, baina administrazio publikoen babes politiko eta ekonomikoaren bitartez funtzionatzen dute.

2016an hasi zen LAB ikuspegি nazional eta estrategiko batetik zaintza



© ECUADOR ETXEA

sektoreko langileen beharrei erantzun kolektibo bat emateko lehen urratsak ematen. Beste era batean esanda, langile subjektuaren berrosaketan urrats praktikoak ematen. Zaintza zaindu lemapean mobilizazioak egin zituen, zaintza sektore feminizatuen beharreratik lan ildo eta aldarrikapen ezberdinak kaleratu asmoz: langile kopurua handitzeko eta duintasunez lan egiteko eskubidearen alde, lan zentroetan langileek pairatzen dituzten erasoен berri eman eta horien kontrako neurriak exijituz, zaintza lanen negozioa eta horren ondorioak salatuz, ratio legearen aldaketa eta berritzea eskatuz... Aldarrikapen horiek lantzeari esker, langileek modu individualen bizi zituzten arazoak arazo kolektibo bilakatzea lortu zen. Ordutx gerotik, azken urteetan zenbait borroka eta su txiki piztu dira (baita zenbait handi ere). Funtsezko aldarrikapen batzuen defentsan mobilizatu dira langileak: zaintza lanak ezin direla pribatizatu eta instituzioek zerbitzu horien kudeaketa zuzena hartu behar dutela beraien gain.

Hego Euskal Herrian, egoitzen sektoreko borroka guztien parte izan da LAB, eta lidergoa izan du hainbatetan. Horrez gain, estatalizazioari aurre egiteko borroka ziklo betean murgildua dago. Esku hartze sozialeko hitzarmenen negoziazioak irekita ditu. Aniztasun funtzionaleko sektoreak kolektiboki aktibatu dira, enpresetako arazo zehatzak eta negoziazio kolektiboa batuz. Marea Urdina hauspotu du Bizkaian. Inoiz sindikalizatua egon ez den etxeko langileen sektorea antolatu du eta, gaur egun, arlo horretako langileen sail sindikala eratua du sindikatu barruan.

"Greba Feminista Orokorrera indartsu heltzen gara, azpisektoreak mobilizatuak ditugulako" diosku Olaldeek. "Mugimendu Feministak mahai gaineratu duen egoeraren argazkia

gutziz partekatzen dugu". Horregatik, zaintza lanen pribatizazioaren eta horrek sortzen dituen ondorioen aurka egiteko, greba deialdira batu da LAB, zaintza langileek bizi duten egoera larriari neurriko erantzun sendo eta bateratu bat eman behar zaiola ulerzen duelako. Zaintza Sistema Publiko Komunitarioa eraikitzen hasteak eta langileen izaera publikoa aitortzeak sektoreko langileek bizi duten prekariitate egoera goitik behera irauliko luke. "Horregatik guztiagatik, funtsezko da azaroaren 30ean kalera ateratzea

eta aldarrikapen horiek erdigunean kokatzea eta borrokatzea".

ALDARRIKAPEN NAGUSIAK

2023ko urte hasieran soziokomunitario sektoreko delegatu guztiei parte hartzera dei eginez, asanbladak deitu zituen LABek Hego Euskal Herriko lau hiriburueta. Euretan, zaintza zerbitzuen pribatizazioak langileentzat miseria zekarrela salatu zen. Egoera horren aurrean, pribatizatutako zaintza sektoreko langileak langile publikoak direla aldarrikatzearen beharra azpimarratu eta hortik abiatuta, ildo mobilizatzaile berri bat irekitzea ere adostu zen. Ordutx gerotik, "zaintza lanak kudeatzen dituzten enpresen kontra mobilizatu gara, EAjak zaintza sektoreari esker egiten duen negozioa salatu dugu eta langile publikoak garela defendatu. LABek argi dauka pribatizatutako zaintza sektoreetako langileak langile publikoak direla", dio Barriosek. Aitorpen horrek eragin zuzena izango luke sektoreko langileen lan eta bizi baldintzetan. Olalderen esanetan: "gure lanek zaitza zerbitzuak mantentzen dituzte, eta gizarteratu behar dugun aldarrikapena da zerbitzu horiek %100ean publikoak izan behar direla, eta administrazioak zuzenean kudeatuak. Zaintza lanak ezin dira pribatizatu, zerbitzuen degradazioari eta okertzeari aurre egin behar diogu, publifikazioaren bidez".

LABek zaintza zerbitzuen kudeaketa publiko zuzenaren alde egiten du, horrenbestez. Olalderen hitzetan: "hautu politikoa izan behar da enpresen esku hartzea zaintza zerbitzu publikoetatik kanpo uztea". Zaintza lanak publiko bihurtzearen bidez pauso garrantzitsua emango litzateke langileen zein egoiarren duintasuna bermatzeko bidean. Hori da bidea. ■

“ NEGOZIAZIO MAHAIETAN PAREAN DITUGUN PATRONALEKO ORDEZKARIEN ARTEAN ZEIN INSTITUZIOETAN GIZONAK DIRA NAGUSI, EMAKUME* LANGILEEN LAN BALDINTZAK ERABAKITZEN ”

EKHIÑE PETRIATI GARALUT ETA MARINA URKIDI GARDE » Denon Bizitzak erdigunean



«Pertsona orok bizitza
osoan zehar zaintza
jaso eta emateko
eskubidea duela esan
nahi du zaintzarako
eskubide kolektiboak»

EKHIÑE PETRIATI GARALUT (Iruñerria) eta **MARINA URKIDI GARDE** (Bilbo) Denon Bizitzak Erdigunean koordinadorako kideak dira. Elkarrizketa honetan Greba Feminista Orokorraz eta Herri Akordioaren proposamenaz jardun dira, besteak beste.

Greba Feminista Orokorraren prozesuaren baitan askotan esaten ari da ez dela isolatuta ulertu daitekeen egun bat, prozesu baten baitan kokatzen dela. Nondik dator eta nora doa?

Greba bera eta *Bizitzak erdigunean* prozesua ezin ditugu ulertu aurreko bi Greba Feministak aintzat hartu gabe, hortik gatoz. Orduan hasi ginen prozesuaren marko teorikoa jorratzen, sistema bera errotik aldatzearen beharra erdigunean jartzen.

Horren ondoren iritsi zen pandemia eta beste zentralitate bat eman zion gaiari. Momentu horretan, argi

ikusi zen zaintza sistema kolapsatzen ari zela, bai etxe barruetan, baina baita soldatapeko zaintza sektoreetan ere. Etxe barruetan oso oinarritzko eztabaideak ireki ziren; nork zainduko ditu umeak lanera joan behar baldin badugu eta eskolarik ez badago?

Mugimendu Feministak berehala sortu zuen Denon Bizitzak Erdigunean koordinadora, mugimenduan antolatutako eragile eta kolektibo ezberdinak. Koordinadorak zaintzen gaiaren inguruan diagnostiko serio bat egitea erabaki zuen. Horrekin batera, hasieratik izan zen asmoa trantsizio sozial baten beharra planteatzearena. Zain-

tzen gaietatik abiatuta, sistema hau sostengaezina dela salatzea.

Hurrengo puntu garrantzitsua 2022an Gasteizen egin genuen jardunaldia izan zen. Hausnarketa kolektibo sakona egin zen orduan, zaintza eskubide kolektiboaren ideia lantzen. Azpimarragarria da zaintza eskubide kolektiboaren ideia edo konzeptua Euskal Herrira ekarri dugula, hori izendatzen eta garatzen hasi garela. Finean, pertsona orok bizitza osoan zehar zaintza jaso eta emateko eskubidea duela esan nahi du eskubide horrek. Eta bi premisa bete behar dira eskubide hori benetan bete dadin. Alde batetik, denontzako zaintza izan behar dela, bestela ez baita kolektiboa. Unibertsaltasunaren elementu hori jaso behar du, beraz. Eta, bigarren premisa, ez dadila izan ez inoren ez ezeren ordainetan. Beste pertsona baten bizitza prekarizatzen badu edo zapaltzen badu ez da eskubide hori betetzen ari.

Eskubide hori gauzatzeko bidean Euskal Zaintza Sistema Publiko Komunitarioaz hizketan hasi ginen ondoren. Eta ordutik aurrera, mugimendu moduan gorputzen, herrialde mailako asanbladak antolatzen... gaur arte.

Greba Feminista Orokorra instituzioak interpelatzeko momentu bat izango da. Zein agertoki ireki nahi da horren ostean?

Prozesu honek bi lanketa paralelo ditu. Alde batetik, greba aurrera ateratzea eta horrek dakarren lan guztia. Eta, bestetik, Herri Akordioaren idazketa, aurkezpena, eragile sozialekin lanetta, atxikimendua bilatzea... Herri Akordioarekin instituzioak interpelatzea bilatzen da. Eta hori ere koka-tzen dugu grebaren helburu bezala.

Grebarekin lortu nahi dena da instituzioekin (EAeko eta Nafarroako gobernuekin bereziki) negoziaketa mahai bat sortzea. Behin mahaia irekita, joango gara ikusten zertarako gaitasuna dagoen.

Gure helburua litzateke tokian toki erabakimen gaitasuna duten mahaia sortzea eta benetako negoziaketak ematea Herri Akordioan jasota dauden aldarrikapenak btearazteko.

Instituzio ezberdinak interpelatuko dira? Maila eta negoziazio esparru ezberdinak planteatuko dira?

Ikusteko dago oraindik zein izango den grebak utziko duen oinarria. Dena den, gure aurreikuspena da aukera ezberdinak zabalduko direla eta horietako bakoitza dagokionak eta dagokion ardurarekin kudeatu beharko duela. Mugimendu Feministak, gainontzeko eragileekin batera hartu beharko du ardura ireki-

**“
HERRI AKORDIOA
EUSKAL
HERRITARRON
BIZI BALDINTZAK
HOBETZERA DOAN
PROZESU BATEN
BAITAN KOKATZEN
DEN TRESNA DA
”**

tzen diren mahai horietara joan eta horietan alde batetik edo bestetik eragiteko.

Aldi berean, prozesu hau baliatu beharra dago instituzioen mugak gainditzeko, barrerak apurtzeko. Instituzioetan dinamika ezberdinak pizteko aukera aprobetxatu beharra dago. Instituzioen demokratizazioan eragiteko potentzialitate handia du prozesu honek.

Nola definitzen duzue Herri Akordioa? Zer da tresna hori?

Herri Akordioa euskal herritarron bizi baldintzak hobetzera doan prozesu baten baitan kokatzen den tresna bat da. Herri Akordioa tresna eta aitzakia da prozesu horri prozesu izaera bera emateko. Prozesuaren lehen egunetik bertatik Herri Akordio batez hitz egiten aritzeak (eta ez soilik grebaz beraz) berritasun bat suposatzen du. Epe luzera begirako

ikuspegি hori txertatzea ahalbidetzen du, gainera. Apustu indartsua egin da horretan, nahiz eta zaila izan den sarritan.

Plano ideologikotik plano materialera jauzia emateko apustu bat ere bada. Gehiengo sozial zabalekin osatutako akordio bat egiten saiatu gara, ekarpen ezberdinakin... eta hori izan da horretarako topatu dugun edukiontzi egoki edo eraginkorrena.

Laburbilduz, prozesurako oinarri sendoa ematen duen tresna izan da Herri Akordioa.

Nolakoa izan da Herri Akordioaren lanketa prozesua?

Akordioan jasotzen diren edukiak Gasteizen apirilean egin genuen Asanblada Nazionalean zirriborratu ziren, Mugimendu Feministako 200 bat kideren artean. Ondoren, hilabeteetan zehar hori sistematizatzen ibili gara. Ekainerako, baguen Herri Akordio horren lehenengo zirriborroa, aldarrikapen batzuekin. Eragileei aurkeztu eta irailera bitarte erakpenak jaso ditugu.

Egia esan, eragile sozialen aldetik harrera ona izan du akordioak eta izan dira ekarpenak ere. Eragile sozialek, orokorrean, planteatutako irakurketa konpartitu dute.

Edukien aldetik, zeren baitako adostasun edo akordioak lortu nahi dira?

Hiru multzo nagusitan daude banatuta aldarrikapenak. Zaintza sistema publikoaren aldekoak; Bizitza duinen aldekoak; eta, azkenak, zaintza langileen lan baldintza duinen aldekoak.

Zaila izan da multzokatze hori egitea, aldarrikapen batzuk oso elkarlotuak baitaude. Aldarrikapenak etxez etxe langileen lan bal-

dintza duinak eskatzetik pentsio duinetaraino doaz. Guztiek dute gai komun bezala zaintzarena. Akordioan jasotzen diren elementu guztia elkarloturik ulertzen ditugu, oinarrizko eskubideak bermatuak izan gabe ezin baita zaintza eskubidea bermatu. Horregatik hitz egiten dugu pentsioez edota etxebizitzaz.

Aurrerapauso garrantzitsua izan da bizitza duinen aldeko atal hori sartzea, hasieran hain argi ikusten ez zena. Atal horrekin ekarpen bat egin nahi izan da saiatzeko zaintzarekiko dagoen pertzepzio soziala aldatzen, zaintzarekiko dagoen ikuspegi nagusiari buelta ematen. Ulerkera nagusi horrek zaintza dependentzia egoeran dauden pertsonen beharrizanekin soilik lotzen du, zaintzaile eta zainduaren arteko dikotomia faltsuak sortuz. Horri teorikoki buelta emateko ekarpena egin nahi izan dugu.

Zein erreakzio sortu ditu Grebarren iragarpeneak instituzioen edo alderdien aldetik? Interpelatua sentitu da norbait? Zein balorazio egiten duzue?

Ikusten ari gara batzuei ez zaiela gustatu prozesu honekin mugitzen hasi dena. Arriskuan ikusten dute beren burua, beren negozioak. Bel-dur dira. Horrela ulertzen ditugu azken asteetako mugimenduak.

Izan da saiakerarik gure kontzeptuak bereganatzeko, adibidez. Gure termino eta kontzeptuak erabiltzen ikusi ditugu zenbait instituzio. Ikusiko da guzti hori benetan zertain geratzen den. Momentuz, benetako konpromiso politikorik ez dugu ikusi.

Bi oztopo nagusi identifikatu daitezke prozesu honetan zehar. Alde batetik, gizonen

implikazio eza zaintza lanetan. Eta, bestetik, zaintza zerbitzuen privatizazioaren aldeko hautua instituzio nagusien aldetik.

Gizonen paperari dagokionez, bai lortzen ari garela aldaketa bat ematea. Jendea greba bat antolatzera hurbiltzen da, baina lanean jarri eta berehala ohartzen da greba bat antolatzeaz gain egoteko moduak errebisatzea, gizonen rola birpentsatzea... ezinbestekoa dela. Grebara bidean egiten ari garen prozesuak era integral eta transberdalean eragin bat du horretan. Erronka da prozesuaren parte izaten ari diren eragile guztietan ere eragin bat izan dezala. Planteatzen diren eztabaida, korapilo, ikaspenak... eramatea era-gileetara ere.

Pribatizazioen gaiari dagokionez, prozesu honek balio du publikoa zer den eztabaidatzen hasteko, publi-

koaren zentzu sakona, eta ohartze-ko nola kontzeptu horrek zentzu guztiz galdu duela azken urteetan. Publiko izena duten baina publikoak ez diren gauza asko daude mo-mentu honetan. Bataila asko irabazi dituzte elite politikoek norabide horretan. Grebarekin, publikoaren zentzu hori lehiatzeko aukera izaten ari gara eta aldaketarako arrakala handiak zabaltzen ditu horrek.

Ze rol jokatu beharko genuke prozesura batu garen eragile guzik?

Mugimendu Feminista iristen da iristen den tokiraino. Eragile sozial bakoitzak ikusi beharko du zein ekarpen egin diezaiokeen prozesuari bere lan lerro propiotik. Sindika-tueten kasuan, noski, lantokietara greba eraman, eta ahalik eta ulergarrien egin, badakigulako lantoki askotan ez dela batere erraza guzti honen inguruau hitz egitea. Orain, sindika-tuek lan handia duzue horretan. Ez da erraza pedagogia egitea zaintza zer den azalduz, zer den zaintza sis-tema publiko baten alde borrokatzea eta zergatik egin behar den.

Sindikatuen kasuan, gainera, aukera bat eman dezake azken urteotan eman dituzuen aurrera-pausoetan sakontzeko. Adibidez, lan esparru ez arautuei nola heldu. Mugimendu Feministatik esaten ari gara greba egunaren arrakasta ezin izango dela neurtu paroi produktiboaren arabera, zaintza ere-muetako asko ezin izango direlako gelditu. Aukera ona da paradigma aldaketan sakontzeko. Kapitala eta lanaren arteko gatazkaren inguruau hitz egitek, kapitala eta bizitzaren arteko gatazkaz hitz egiterako jauzia emateko. Eztabaida marko horri ezartzeko eta marko hori aberasteko. Sindika-tuek zeregin polita duzue horretan. ■

**OINARRIZKO
ESKUBIDEAK
BERMATUAK IZAN
GABE EZIN DAITEKE
ZAINTZA ESKUBIDEA
BERMATU**

Encuentro de Organizaciones

Defender la vida, cuidarse de forma comunitaria y construir otros mundos posibles

El Encuentro de Organizaciones es un movimiento social de Argentina, de la provincia de Córdoba (la segunda más poblada del país), que agrupa a unas 40 asambleas de diferentes barrios de la ciudad y localidades de la provincia. Desde el año 2006, reúne e impulsa experiencias organizativas en el interior de un país profundamente centralista. El amplio colectivo mixto de militantes que lo conforman se reconocen como anticapitalistas, anticolonial-

les y antipatriarcales e integran espacios organizativos con un fuerte arraigo territorial. Sus ejes de trabajo son la alimentación, los cuidados comunitarios, la educación, la promoción de la salud y un largo etcétera, según las necesidades e intereses de cada territorio. La autonomía, la autodeterminación y la democracia directa son pilares que sostienen y marcan su día a día.

Dentro del abanico de acciones que

realizan, hay al menos tres áreas de trabajo que se encargan de los cuidados: la Rama Sociocomunitaria, las Promotoras de Salud y Casa Comunidad. Las tres están integradas en su mayoría por mujeres, a quienes se les reconoce las tareas que realizan como trabajo asalariado por parte de la organización.

En las barriadas argentinas, la olla comunitaria, los comedores, son de vital importancia. Esos espacios sostenidos

CAROLINA MEDINA Y VANESA FONTANELLAZ »Militantes del Encuentro de Organizaciones

Tenéis una perspectiva integral de los cuidados, contemplando dentro del concepto de los cuidados la alimentación, la educación digna, la gestión comunitaria de la salud...

Así es. Cuando desde el sistema público no se da respuesta a todas esas necesidades vitales es desde la propia organización, desde el propio territorio, desde donde se responde.

Cuando empezamos con la idea de organizarnos a nivel territorial, en los barrios, partíamos de la premisa de que todas queremos una vida digna. Y en el centro de esa reflexión se encontraba el qué es lo que necesitamos para que nuestras vidas sean dignas. Desde ahí comenzamos a pensar todas las cosas. Una de ellas, por ejemplo, era la alimentación, la lucha contra el hambre en nuestros barrios. Lo mismo con la lucha contra la violencia de género... Nuestras premisas como organización social son tierra, techo y



«Las políticas se tienen que construir desde abajo, partiendo de nuestras necesidades y nuestros derechos»

trabajo para todas y todos. Es en base a esos principios que construimos todas nuestras luchas.

Frente al olvido y al abandono del estado estás dando respuesta desde lo territorial-popular a la vulneración de derechos y necesidades fundamentales. Para vosotras, ¿qué es la

comunidad? ¿Y lo comunitario? ¿Qué significa autogestión desde abajo?

Las políticas se tienen que construir desde abajo, partiendo de nuestras necesidades y nuestros derechos. Es a partir de esas necesidades y derechos vulnerados desde donde construimos toda nuestra agenda. No se pueden pensar los problemas desde arriba.

por vecinas y vecinos y presentes en todas las zonas empobrecidas garantizan la alimentación de miles de familias. Además, son un germen desde el que se desarrolla la posterior organización. Por lo general, quienes se organizan para sostener diariamente esos espacios también desarrollan otras acciones para mejorar la vida de la comunidad.

Por otro lado, las promotoras de salud realizan una importante tarea en sus comunidades. Las instituciones de salud en Argentina, y Córdoba no es la excepción, desarrollan una atención insuficiente para los sectores empobrecidos. Ante esto, militantes de diferentes zonas se forman y trabajan como promotoras de salud, realizando talleres y campañas de atención.

Nuestra manera de construir comunidad es partiendo de lo que vemos, de lo que nos atraviesa el cuerpo. Todo lo que hacemos lo hacemos colectivamente.

Así es como trabajamos, cuidándonos entre nosotras y construyendo comunidad desde las asambleas, desde el comedor donde te juntas con tus compañeras, con las vecinas. Hablando de lo que le sucede a una, de lo que le sucede a la otra... y es desde ahí desde donde empezamos a construir todos los espacios. De otra forma no lo hubiésemos podido conseguir. Compartiendo y socializando nuestros sentires es como pudimos ir generando nuestras políticas y ponerlas en la agenda.

En cuanto a la organización, ¿cuáles serían las dificultades y los aprendizajes que sacás del proceso llevado a cabo durante tantos años?

Funcionamos de forma asamblearia. Es en esas asambleas donde se trabajan todas las problemáticas presentes

Por último, Casa Comunidad es un espacio de promoción y acompañamiento ante situaciones de violencia de género. Pretende ser un espacio que abrace a identidades feminizadas y disidentes organizadas en el Encuentro de Organizaciones u organizaciones afines. Fue creada tratando de responder a preguntas urgentes: ¿qué hacemos con la violencia machista? ¿Cómo acompañamos a la vecina que está atravesando una situación de violencia? ¿Adónde voy si necesito irme de mi casa de urgencia? La apuesta de Casa Comunidad es tejer redes que las acompañen y prevengan las situaciones de violencia, desafiando el aislamiento y la privatización de la vida.

El Encuentro de Organizaciones tie-

ne el objetivo de defender la vida, cuidarse de forma comunitaria y construir otros mundos posibles.

La apuesta es a construir comunidad, creando, fortaleciendo y defendiendo los espacios “entre” las personas y, en particular, “entre” identidades feminizadas y disidentes. Construir comunidad entendiendo que nadie se salva sola, que enfrentar las múltiples opresiones es aportar a transformar de raíz las estructuras sociales capitalistas, patriarciales y coloniales. Construir comunidad, algo que hacen todos los días quienes viven en las barriadas populares, en cada olla, en cada espacio para las infancias, con cada acción colectiva que le hace frente a tanto despojo. ■

en los barrios: lo que necesitamos para nuestro comedores, para nuestras viviendas, para que nuestras vidas sean dignas. Así elaboramos nuestros reclamos que después llevamos a mesas de negociación, ya sean con el gobierno municipal, el provincial o el nacional. Eso sí, todo lo conseguido es gracias a la lucha en la calle.

¿Cuál es la relación con las instituciones? ¿Cuáles son esos reclamos de los que habláis?

Una de nuestras principales campañas fue «trabajadoras somos» para exigir que se reconociese todo ese trabajo que realizamos y que no era reconocido formalmente. Ésa fue una lucha que ganamos. Logramos que el gobierno central reconociera que lo que nosotras hacíamos era un trabajo por el que se debía pagar. Durante años lo habíamos hecho voluntariamente y sin remuneración.

Por otro lado, con el gobierno municipal tratamos temas como el de con-

seguir alimentos para los comedores. También conseguimos crear bibliotecas para que los niños y niñas tengan su espacio para acceder a libros y a la conexión de internet, porque hay muchos que no tienen acceso a ordenadores e internet para estudiar.

¿Cómo trabajáis la implicación en la lucha a los diferentes colectivos?


Normalmente las familias se acercan buscando ayuda, buscando alimentos, y poco a poco se involucran cada vez más. Se entusiasman con la organización y se quedan. Así se va creciendo. Nosotras hacemos ver cómo el estado nos tienen abandonadas. Hay muchas familias que no cuentan con luz, con agua potable... Hacemos que se cuestionen si esa es realmente la vida que quieren. Nosotras queremos cambiar esa forma de vida. Por lo tanto, la gente se implica para cambiar su situación de vida y mejorarlala. Las luchas empiezan así. Todo se consigue convidando a la lucha y con la gente organizándose colectivamente poco a poco. ■

Zaintzara emandako enplegu eta lan guztiak prekarioak dira...

Zaintza lanetara emanda dauden enplegu eta lan guztiak prekarioak dira prekarietate indizearen arabera.

- **Etxeko lanek** (lan errepraktiboa) inolako **aitortza sozial zein ekonomikorik gabe** jarraitzen dute.
- **Etxeko langileen oinarrizko soldata** Langile Estatutuak zehazturiko 1.080 €-koa da. **Gutxieneko soldataren azpitik** egoteaz gain, sektore horretako langileen **egoera prekarioa, irregularra/ ilegal eta oinarrizko eskubideen aurkakoa** dela azpimarratu nahi dugu.
- **Helduen egoitzetako langileen batez besteko soldata** ere (1.444,74 €) KPI-aren arabera eguneratu dugun **Gutxieneko Soldataren azpitik**. Lan Hitzarmen Estatala duten emakumeena* are baxuagoa da (1.061 €).
- **Etxez etxeko zerbitzuan** ere **prekarietatea da nagusi**.

...aldiz, zaintza lanek Hego Euskal Herriko BPG-arekiko %25,75eko pisua dute




Zaintza lanetan emakumeei* inposatzen zaie ardura nagusia

eremu pribatuaren
etxeko zaintza eta lanen

%67,2

emakumeek* egiten dituzte




Emakumeek* lanaldi bikoitzak egitera behartuak daude

etxetik kanpo enplegua
duten gizonen

%82ak

ez dute inoiz
etxeko lanik egiten




Zaintzari emandako enplegua feminizatua dago

Etxetik kanpoko zaintza enpleguetako langileen

%80,5a

emakumea* da

ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATURIKOEN ARTEAN ZAINTZARA DEDIKATUTZEN DIREN LANGILEAK 2012 – 2020




